

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea 1/23 kreditu gehigarriari

Udalbatzak, 2023ko martxoaren 8an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion kreditua gehitzeko 1/2023 espedienteari.

Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espediente hori hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalbatzari.

Aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko da kreditua gehitzeko espedientea.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2023ko martxoaren 9a

*Alkate-lehendakaria*

*MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ*